

KANALAK (banaketa, komunikazioa)

Lehenengo sei hilabetetan gure produktua interneten bidez saltzea erabaki dugu DHL enpresaren bidez. Gure web orrialdearen bidez (<https://www.blogger.com>) salduko dugu. Izan ere, beste web orrialdetan (Amazon, eBay) ere aurkitu daiteke. Gure web-orrialde propioa sortuko dugu, bertan gure produktua salduko dugu eta hainbat komunikazio berri sortzen joango gara produktua eboluzionatu eta salmentak gero eta handiagoak izaten diren heinean .

Ostean, dena ondo badoa, salmenta puntuak jarriko ditugu (hirietan, kale komertzialetan eta merkatal zentroetan) gehien bat. Gure produktua, batez ere, kirolarientzat zuzenduta dagoenez, hainbat kirol dendetan salduko ditugu (Decathlon, Forum...); beste alde batetik, segurtasuna saltzen dugunez, hainbat ferreteriatan jarriko dugu gure produktua eta batez ere, moto-dendetan, zeren eta pertsona batek diru kantitate handi bat gastatzen badu erosketa batean, gure produktua da seguruena lapurretarik ez izateko.

Azkenik, produktua eskura izateko, hainbat zentru-komertzialetako Eroskietan eta antzekoetan jarriko ditugu, marketing dela eta, joaten zarenean janari bila eta gure produktua ikusten duzunean, tentazioa daukazu gelditzeko eta gauza berri hura zer den jakiteko. Bukatzeko, hainbat publizitate orriak joango gara banatzen, jendea informazioa eskuragarri izateko eta gurekin kontaktatzeko erraztasunak.